

## KONPROMISOEN PROPOSAMENA:

# BIGARREN HEZKUNTZA

## Sar Hitz

---

2.003. ikasturteko lehenengo hiru hilabeteen, Hezkuntza Deialdia zabaldu zuten Euskal Herria osoko 200 lagunek. Helburua, azken aldi honetan hezkuntza arloan pairatzen ari garen lege eta bestelako neurrien aurrean erantzun eraikitzailea ematea. Hezkuntza Deialdiak bi ekimen jarri zituen martxan: batetik, Iruñean abenduaren 20an burututako nazio manifestazioa. Bestetik, hezkuntza sistema propioaren aldeko protokoloa. Bi ekimen horiekiko gizarteratze lana egin zen azaroan eta abenduan zehar, eta osotara 1.000 atxikimendu baino gehiago bildu ziren. Orain, hezkuntza sistema propioaren aldeko protokoloa eztabaidatu, adostu eta gauzatzeko tenorea heldu da.

Protokoloaren funtsa sinplea bezain mamitsua da: har dezagun **jarrera bateratua** hezkuntza komunitatea osatzen dugun guztiok, ireki dezagun aterki kolektiboa inposatzen dizkiguten hezkuntza planteamenduen aurrean; eta indartu dezagun Euskal Herriko beharretara egokitutako hezkuntza eredua.

**2.004. urteko otsailetik ekainera Protokoloa eztabaidatu eta garatzeko prozesua emango da.** Metodologia honako hau izango da. Lehenik eta behin, Protokoloaren agiria (bi orrikoa) eztabaidatu eta ontzat ematea. Momentuz 1.000 lagunen atxikimendua dauka aipatu agiriak, baina orain erakundeen eta ikastetxeen atxikimendua bilatuko dugu. Bigarrenik, atxikimendu teoriko hori konpromiso praktikoetan gauzatzea. Hau da, ikastetxe bakoitzean hausnartu eta adostu dadila zer den bertan egin daitekeena. Puntu honetan, ikastetxeko Hezkuntza Egitasmoaren garrantzia azpimarratu nahi dugu, bai eta Autonomiaren printzipioa aldarrikatu.

**Hezkuntza Egitasmoa**, gure ustez, nahi eta behar dugun hezkuntza sistema propio horretarantz urratsak emateko gakoa da. Euskalduntze prozesua, euskal curriculum, parte hartzea eta bestelako helburuak lorgarriak dira Hezkuntza Egitasmoen bidez. Eta ikastetxe ezberdinetan urratsak emanez, orokorrean ere urratsak eman daitezen ahalbidetuko dugu.

**Autonomiaren printzipioari** dagokinez, Hezkuntza Egitasmo hori garatu ahal izateko baldintza beharrezkotzat jotzen dugu. Eta beraz, aldarrikatu eta eskuratu beharrezkotzat jotzen dugu, ez helburu bat bezala bere baitan, baizik eta hezkuntza sistema propiorantz urratsak emateko ezinbesteko tresna gisa.

## Hizkuntza

---

1. Ikasketak amaitzerakoan ikasleak euskarazko gaitasun osoa izan dezan bermatzeko asmoz, **euskalduntze integralerako planteamendua diseinatu eta martxan jartzea**. Ondorioz, euskalduntzen ez duen hizkuntza eredurik ez eskaintzea eta, egotekotan, bere desagerpen progresiborako bitartekoak jartzea<sup>1</sup>.
2. Ikastetxean **euskaraz integralki bizitzeko neurriak hartzea**, eskolak euskaraz emateaz gain, bestelako iharduerak ere euskaraz garatzen direla bermatuz: hizkuntza-paisaia, oharrak, agiriak, eskolaz kanpokoak, langilegoa, garraioa, jantokia... Zentzu berean, ikastetxearen autonomiarako eskubideaz baliatuta, erdara hutsean bidalitako oharrak edo asignatutako langile erdaldunik ez onartzea.

---

<sup>1</sup> Gero eta nabariagoa da hizkuntza ereduen politika agortuta dagoela. Alde batetik, G, X, A eta B ereduak ez dutela euskalduntzen frogatuta geratu da. Beste alde batetik, D erudian ikasten duten ikasleen artean ere gabeziak somatzen dira, bereziki zonalde erdaldunetan, non gazteak askoz hobeto aritzen dira erdaraz, euskaraz baino (eta hala aritzen dira, askotan). Irtenbidea, tokian tokiko egoerara loturiko euskalduntze planteamendu integrala egitean datza. Zentzu honetan, abiapuntuak, ezbairik gabe, honako hau izan behar du: klaseak euskaraz jaso behar dira (zentzu honetan, lehen aipatutako ereduak ez lukete tokirik izango). Baina auzia ez da han amaitzen. Handik aurrera, euskalduntze integralerako planteamenduak egin behar dira, bereziki euskara gutxitua dagoen zonaldeetan (euskara komunikatzeko tresna gisa bultzatuz, gazte hizkera landuz, motibazioari garrantzia emanez...).

## Curriculum

---

3. **Euskal Herria (Euskal Herria osoa) aintzat hartzen duten mapak erabiltzea**, bai Euskal Herrikoak, bai Europakoak, baita Mundukoak ere. Beraz, Euskal Herria aintzat hartzen ez duten mapak ez onartzea.
4. **Curriculumaren lurralde-ardatza Euskal Herria izatea**. Euskal Herritik ikus dezagun, bai Euskal Herria bera, baita Mundua ere. Bide honetan urrats txiki bat litzateke, irakasgai guztietan<sup>2</sup> **erabiltzen diren datuak eta adibideak geure inguru hurbilari loturik egotea**.
5. Oinarrizko material gisa (testuliburuak eta bestelakoak), **Euskal Herrian ekoiztutakoa erabiltzea**, eta ez kanpoan egindako materialaren itzulpen hutsa.
6. **Munduaren gaineko ikuspegi integrala hartzea**<sup>3</sup>. Urrats txiki bat, zentzu honetan, mundua errepresentatzeko erabiltzen diren **mapak errealistagoak izatean datza**<sup>4</sup>.
7. **Hezkidetzaren jorratzea**. Honako hauek izan daitezke bi urrats, bide honetan: batetik, erabiltzen diren adibide eta irudietan topikoak apurtu eta genero bereizkeriarik ez egitea; bestetik, gaitegian emakumezkoak (egoera jakin bat pairatzen duen kolektibo gisa) bisualizatzea<sup>5</sup>.

---

<sup>2</sup> Baita Matematika bezalako irakasgai neutral batean ere. Izan ere, ariketetan erabiltzen diren adibideak askotan estatuen ikuspegitik egiten baitira, batez ere Euskal Herritik kanpo egiten diren testuliburuaren kasuan.

<sup>3</sup> Askotan, konturatu gabe ere, Munduaren gaineko ikuspegi etnozentrikoa hartzen dugu, Mendebaldean zentratuta erabat. Esaterako, badirudi neolitizazioa soilik Tigris eta Eufrates artean eman zela, handik hedatu baitzen Europara. Baina, garai beretsuan, Indian, Txinan eta Mesoamerikan ere neolitizazioa eman zen. Zonalde horiek historiara sartzen dira europarrek kolonizatzen dituztenean, eta gehien jota “Konkista aurreko Amerika” izeneko atala jartzen da, sarrera soil gisa.

<sup>4</sup> Euskal ikastetxeetan gehien erabiltzen den munduko mapa Mercatorrek diseinatutakoa da. Mapa honetan ipar hemisferioa hegoaldekoaren kaltetan handitzen da. Peters-ek diseinatutakoa, zentzu honetan, errealistagoa (eta bidezkoagoa) da.

<sup>5</sup> Garai batean hezkidetzaren inguruko arreta berezia zegoen euskal ikastetxeetan, baina gaur egun galdu egin da neurri batean. Genero bereizkeriarik gabeko hezkuntza dagoen seinale ote? Ez, ezta gutxiago ere. Zentzu honetan, curriculum lantzeko orduan, genero ikuspegitik egindako autokritika berreskuratu beharra dago.

## Pedagogia

---

8. Ikastetxeko Hezkuntza Egitasmoa garatu ahal izateko, **irakasleriaren egonkortasuna bermatzea**. Ikastetxe publikoen kasuan, neurri hau aplikatzea oso zaila da, azken batean irakasle bakoitzak urtero lekua hautatzeko aukera baitauka. Hala ere, ikastetxean gutxieneko konpromiso kolektibo bat lortzen saiatu gaitzke, behintzat epealdi batean ekipo pedagogikoa mantendu ahal izateko. Bestalde, gela berarekin tratua daukaten irakasleen kopurua mugatzea interesgarria lizateke, hezkuntza prozesuaren kalitatea hobetzeko.
9. **Irakasgai bakoitzeko ebaluazioa azterketen bidez soilik ez burutzea**. Alde batetik, taldeko zein norbanako lana ere aintzat hartzea. Eta beste alde batetik, edukiak menperatzeko gaitasunaz gain, jarrerak, gaitasunak eta baloreak ere kontutan hartzea<sup>6</sup>.
10. **Klase bakoitzeko ikasle kopurua murrizten saiatzea**, bereziki ikasle gehiegi dituzten klaseen kasuan, era horretan irakaskuntza/ikaskuntza prozesua baldintza hobeagotan eman ahal izateko<sup>7</sup>.
11. **Ikasturtean zehar hainbat irteera antolatzea**, ikasleek zuzenean ezagutu ditzaten klasean landutako gaiak. Bestalde, irteeren planteamendu osatu batek Euskal Herria gehiago ezagutzeko aukera eman dezake.
12. Maila berean klase bat baino gehiago egotekotan, **klaseak banatzeko irizpidea ikasleen emaitza akademikoak ez izatea**.
13. Administrazioetik **errealida egiteko paperak heltzen direnean, ikastetxearen desadostasuna formalki azaltzea**, "legearen aginduz" tramiteak egingo badira ere.

---

<sup>6</sup> Kalitate Legea ikaskuntza memoristikoa eta azterketa-sistemaren nagusitasunean oinarritzen da. Horren aurrean, planteamendu pedagogiko aurrerakoiak berrindartzea beharrezkoa da.

<sup>7</sup> Neurri hau bururaino eramatea oso zaila da, azken batean administrazioa baita irakasle kopurua zehazten duena. Hala ere, ikastetxe bakoitzak daukan irakasle kopuruarekin planteamendu bideragarriak egin daitezke. Esaterako, klase ordu gehiago/ikasle gutxiago formula aplikatuz.

## Parte hartzea<sup>8</sup>

---

14. **Ikastetxeko Hezkuntza Egitasmoarekin zein ikastetxeko funtzionamenduarekin zerikusia duten erabaki guztiak eskola kontseiluan edo bestelako erabaki gune kolegiatuan hartzea.** Erabaki gune hauetan, sektore guztien parte hartzea bermatzea (formularik egokiena paritatearena litzateke). Ikastetxe publikoen kasuan, eskola kontseiluko lehendakaria bertan parte hartzen duen edozein pertsona izan dadin ahalbidetzea (hau da, ez da zertan zuzendaria izan behar nahitaez).
15. **Hala ikastetxeko zuzendaria, nola ikasketa burua eta idazkaria, eskola kontseiluan edo bestelako erabaki gune kolegiatuan hautatzea.** Ikastetxe publikoen kasuan, inor ez aurkeztekotan, alternatiba ikastetxean bertan bilatzea, administrazioaren esku utzi ordez.
16. **Gurasoen parte hartzea bultzatzea.** Bide honetan hartu daitekeen neurria da honako hau: ikasturte bakoitzean klaseko gurasoen hiru bilera antolatzea, gutxienez.
17. **Ikasleen parte hartzea bultzatzea.** Honako hauek dira bide horretan har daitezkeen neurriak: astero edo beste maiztasun batez ikasleen batzarrak egin ahal izateko ordu lektibo bat aurreikustea; behintzat 14 urtetik aurrera grebarako eskubidea bermatzea; bere iritzia aintzat hartzea, e.a.

---

<sup>8</sup> Kalitate Legearen beste oinarri bat parte hartzearen murrizketan datza. Legearen arabera, “gauza bat da parte hartzea, eta beste bat zuzentzea”. Zentzu honetan, administrazioaren esku hartze handiagoa bilatzen du, eta eskola kontseiluari (publikoen kasuan) pisua kentzen zaio.

## **Egutegia eta ordutegia**

---

18. **Euskal herritarroi arrotz zaizkigun ospakizunak aintzat ez hartzea** (urriak 12, azaroak 11, abenduak 6, maiatzak 8). Horien ordezt, Euskal Herriaren ondare kulturalarekin bat datozen egunetan jai hartzea (martxoak 8, ekainak 23, abenduak 3)<sup>9</sup>.
19. **Ahal izatekotan, musika eta plastikari klase ordu gehiago eskaintzea**<sup>10</sup>.
20. **Erljioen irakaskuntza/ikaskuntza** (katolikoa zein beste bat izan), **ordutegi lektibotik kanpo geratzea**.

---

<sup>9</sup> Hiru data horiek Udalbiltzak eginiko proposamenean azaltzen dira: Martxoak 8, emakumeon nazioarteko eguna; ekainak 23, udako solstizioa; abenduak 3, Nafarroaren eguna.

<sup>10</sup> Kalitate Legeak ezarritako atzerapausua da hau. Honen arabera, musika eta plastika bezalako gaiak ez gutxietsiak dira hezkuntzaren gaineko ikuspegi akademizistan.